

Antzerki bateko gidoian parte hartu nahi duzu?

Dibertigarria izango da!

Círculo Solidario Euskadi – Euskadiko Elkarbideak eta Oihulari klown taldeak, biok lankidetzan, proiektu berri bati ekin diogu, eta humorea oso gai serioak tratatzeko erabiliko dugu. Zure partaidetza ezinbestekoa zaigu antzerki-lan baten gidoia egiteko. Hona hemen landu nahi ditugun gaiak: neoliberalismoa, globalizazioa, garapenerako gobernu kanpoko erakundeak (GGKE), feminismoa, gizarteko bidegabekeriak, kanpo-zorra, eta beste asko...

Horretarako, tailerrak antolatu ditugu, eta zure parte-hartzea espero dugu. Otsailaren 18tik 22ra izango dira, arratsaldeko hiruretatik zortzietara, Euskadiko Elkarbideko lokaletan: Bilbon Ramón y Cajal kalean 43 zenbakian (Deuston) eta Gasteizen Simone de Beauvoir Elkartea Etxean, San Ignacio de Loyola kalean 8. zenbakian, 3. solairuan. Hemen dituzu, egunez egun, landuko ditugun gaiak:

Astelehena Otsailak 18	Asteartea Otsailak 19	Asteazkena Otsailak 20	Osteguna Otsailak 21	Ostirala Otsailak 22
Bilbo	Bilbo	Vitoria - Gasteiz	Bilbo	Bilbo
Neoliberalismoa, globalizazioa eta kanpo-zorra	GGKE: aingeru izatetik, garapenean aktore izatera	Kontsumo arduratsua, bidezko merkataritza, berotze globala, garapen iraunkorra	Pobrezia feminizazioa, matxismoa, ahalduntzea, generoa eta feminismoa	Migrazioak, migrazioek emakume-izena dute, neokolonialismoa, kultura-aniztasuna.

Tailer hauetan esandakoa oinarri hartuta, bertan parte hartuko duen klown taldeak klowndorioak aterako ditu, eta horietatik sortuko da, ondoren, beren antzerki-lana.

Lankide nahi zaitugu, ez da beharrezkoa aditua izatea, nahikoa da gai horien inguruan berriketaldi bat egitera etortzea. Parte hartu nahi lukeen norbait ezagutzen baduzu, gonbidatu, zenbat eta pertsona gehiago egon, askoz hobeto. Proiektuaren helburu orokorrak eta antzerki-lana ezagutarazteko emanaldietan banatuko den publizitate-materialeko esker-onen atalean, parte hartu duten pertsona eta erakunde guztien izenak agertuko dira.

Zain gaituzu!!!

Anima zaitetz!!!



Laguntzailea:



Etortzeko asmorik baduzu, jakinaraz diezaguzu helbide honetan:
araba@cseuskadi.org